

Pribatuen Iragarkiak

CIUDAD JARDÍN INSTITUTO TEKNIKO BEREZIA

IRAGARKIA, Lanbide Heziketako titulu bat galdu dela jakinaraztekoa. 13483

Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3187

AGINDUA, 2008ko apirilaren 11koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren zuzenbide publiko sarrerak Ordainketa Pasabidearen bidez ordaintzea arautzen duena.

Azken urteetan, informazioaren teknologiak eta, beheretik, Internet direla medio, Herri Administrazioek herriarrekin harremanak izateko bide berriak antzeman dituzte, eta zerbitzu publikoak eskaintzerakoan orain arte ezezagunak ziren bitartekoak garatu ahal izan dituzte.

Herritarra da, inoiz baino gehiago, mugimendu honen onuradun nagusia; izan ere, herri-administrazioetara sartu eta eurekin harremanak izateko aukerak funtsean gehitu egin zaizkio.

Ordainketen eremuak mugimendu horren barruan jarraitzen du, eta egun, eraberritze-fase bat bizi du, aurrerapenak —teknologikoak eta merkatukoak— direla-eta. Ordainketa-modu berriak agertzen ari dira, diru, transferentzia edo txekeaz egindako ohiko ordainketez gain. Gehiengo batek onartzen du txartela ordainketak egin ahal izateko, eta horretaz gain, ohiko ordainketa-modalitate batzuk eraberritu egin dira, aurrerantzean Internet bidez erabili ahal izango baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ordainketa-modalitateen alorrean zeukan arautegiak aldaketa bat behar zuen, hain zuzen ere, baliabide teknologikoek egungo berrikuntzeta egokitu ahal izateko. Prozesu hori Dirubilketa Erregelamenduren erreformarekin hasi zen; erreforma horrek ordainketa-modalitateetan txertatu zituen kreditu- eta zor-txartelak, eta horretaz gain, honako hau ezarri zuen: «Administrazioak baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoek erabilera sustatuko du ordainketak egiteko, dekretu honen garapenean ezartzen diren eskakizun eta baldintzakin bat» (13.4 artikulua).

Anuncios Particulares

INSTITUTO TÉCNICO SINGULAR CIUDAD JARDÍN

ANUNCIO relativo al extravío de un Título de Formación Profesional. 13483

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3187

ORDEN de 11 de abril de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, reguladora del pago de ingresos de derecho público de la Hacienda General del País Vasco a través de la Pasarela de Pagos.

En los últimos tiempos las tecnologías de la información y, particularmente, Internet han permitido a las Administraciones públicas vislumbrar nuevos cauces de relación con los ciudadanos y desarrollar medios hasta ahora desconocidos en la prestación de servicios públicos.

El ciudadano, más que nunca, se sitúa como principal beneficiario de este movimiento en tanto ve ampliadas sustancialmente sus posibilidades de acceso y comunicación con las administraciones públicas.

El ámbito de los pagos no se sustrae a este movimiento y, en la actualidad, se encuentra en fase de renovación debido a los progresos generales tecnológicos y de mercado. Estamos asistiendo a la aparición de alternativas de pago a los tradicionales pagos con dinero, transferencia o cheque; a la admisión mayoritaria de las tarjetas como modalidad de pago se une la renovación de otros ya tradicionales, que presentan la novedad de su potencial utilización a través de Internet.

Lo cierto es que la normativa de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, reguladora de las modalidades de pago necesitaba de una modificación dirigida a su adaptación a las actuales innovaciones en los medios tecnológicos. Este proceso se inicia con la reforma del Reglamento de Recaudación que, además de incorporar las tarjetas de crédito y de débito entre las modalidades de pago, establece que «La Administración impulsará el uso de medios electrónicos, informáticos y telemáticos para la realización de pagos de acuerdo con los requisitos y condiciones que se establezcan en desarrollo de este Decreto» (artículo 13.4).

Agindu hau Dirubilketa Erregelamenduaren 13.4 artikuluan aurreikusitako garatzera dator: Administrazioak ordainketak egiteko baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea sustatzeko betebeharra duenez, Agindu honen bidez, betebehar hori gauzatzeko sistema propio bat antolatuko da. Funtsean desberdina den aukera bat da, kreditu-erakundeetan ordainketa elektronikoak egiteko ahalmena aitortzen dueña, hain zuzen ere, erakunde horiek eskaintzen duten edozein ordainketa-bide erabiliz.

Ordainketa Pasabideak eskaintzen dituen funtzionaltasunak aipagarriak dira, ordainketei segurtasuna ematen baitie: funtsean gutxitu egiten ditu Internet bidezko ordainketa batek dituen arriskuak, ordainketa egiteko kreditu-erakundeen web-zerbitzariekin konexio seguruak aurkitzen saiatzen baita; berme bereziak eskaintzen dizkio prozesuari, izan ere, kreditu-erakundeei zorraren identifikazio-datuak bidaltzerakoan, konfidenzialtasuna, egiazkotasuna eta osotasuna bermatzen ditu; ordainketak izan behar duen pribatutasuna bermatzen du, bankuko datuak sarean zehar ibiltzea ez baitu uzten, zuzenean kreditu-erakundearen ingurunera sartzea exijitzen duelako.

Ordainketa Pasabidea herritarri ordainketa egiten lagunduko dion tresnatzat jotzen da. Administrazioaren eta herritarren eskubideen eta betebeharren arteko orekaren oinarrizko printzipioari erantzun nahi zaio; azken finean, betebeharrok borondatez hobeto betetzen lagunduko du. Eta hori lortzeko, urteko egun guztietan eta 24 orduz jarraian egongo da martxan.

Herritarrentzako ohikoenak diren bi ordainketa-modalitateak jaso dira: konturako zordunketa bidezko ordainketa eta txartel bidezko ordainketa. Lehenengo kasuan, baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzen dituen ordainketa denez, kreditu-erakundeek euren bezeroentzako gaituta dituzten sistemak hartu behar dira kontuan. Horregatik, banka elektronikoa herritarren artera oraindik asko zabaldu gabe dagoe-la ikusita, mekanismo berri bat antolatu da —kreditu-erakundeekin elkarlanean—, banka elektronikoko zerbitzuek eskaintzen dituzten aukerak gehitzeko. Sistema horrek kreditu-erakunde kolaboratzaileen txartelak bezeroaren identifikataile moduan erabiltzen ditu, eta zorra bitarteko telematikoen bitartez ordaintzea ahalbidetzen du, txartelari dagokion kontura zordunketa eginda. Horrela, kreditu-erakunde kolaboratzaileen bezeroek, erakunde horretako kontu baten eta erakundeak emandako txartel baten titular badira, Internet bidez ordaindu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarekin dituzten zorrak.

Bigarren kasuan, Pasabideak kreditu-erakundeek emandako zor- eta kreditu-txartelen bidez ordaintzea ahalbidetzen du, eta horregatik, aukera hori ere araututa dago.

Agindu honetan ezartzen denaren arabera, Administrazioaren dirubilketa-organoetara bertaratu eta txartelaren bidez ere ordaindu ahal izango da, gerta baitaite-

La presente Orden desarrolla la previsión del 13-4 del Reglamento de Recaudación, articulando un sistema propio a través del que se materializa el deber que incumbe a la Administración de impulsar la incorporación de medios electrónicos, informáticos y telemáticos a la realización del pago. Se trata de una opción sustancialmente distinta a la que supone reconocer la posibilidad de realizar pagos electrónicos en entidades de crédito a través de cualquiera de los canales de pago que aquéllas tengan habilitados.

La Pasarela de Pagos presenta funcionalidades que merecen ser destacadas en tanto aseguran el pago realizado a través de ella: minora sustancialmente los riesgos derivados de un pago que se realiza a través de Internet, al procurar conexiones seguras con los servidores web de las entidades de crédito para realizar el pago; dota al proceso de especiales garantías al transmitir a las entidades de crédito los datos identificativos de la deuda con garantías de confidencialidad, autenticidad e integridad; garantiza la necesaria privacidad en la realización del pago al impedir que los datos bancarios viajen por la red, en tanto exige su introducción directamente en el entorno de la entidad de crédito.

La Pasarela de Pagos se concibe como instrumento que trata de facilitar a los ciudadanos la realización del pago. Se pretende dar respuesta al principio básico de equilibrio entre los derechos y deberes de la administración y de los ciudadanos, favoreciendo, en definitiva, un mejor cumplimiento voluntario de sus obligaciones. Con este fin, se establece un funcionamiento ininterrumpido durante las 24 horas de todos los días del año.

Se contemplan las dos modalidades de pago más comunes para los ciudadanos: pago mediante cargo en cuenta y pago con tarjeta. En el primer caso, al tratarse de un pago por medios electrónicos, informáticos y telemáticos hay que considerar los sistemas que las entidades de crédito tengan habilitados con sus clientes. Por ello, conscientes del alcance aún limitado entre la ciudadanía de la banca electrónica, se articula un nuevo mecanismo —en colaboración con las entidades de crédito— que amplía sustancialmente las posibilidades que ofrecen los citados servicios de banca electrónica. Se trata de un sistema que utiliza las tarjetas de las entidades de crédito colaboradoras como elemento identificador del cliente y que permite el pago de la deuda por medios telemáticos a través del cargo en la cuenta asociada a la tarjeta. De este modo, los clientes de las entidades de crédito colaboradoras que sean titulares de una cuenta en la entidad y de una tarjeta emitida por ésta, podrán hacer efectivo por Internet el pago de las deudas con la Hacienda General del País Vasco.

Para el segundo caso, la Pasarela habilita la realización de pagos mediante la utilización de tarjetas de débito y de crédito emitidas por entidades de crédito, motivo por el cual también se regula esta posibilidad.

La Orden contempla el pago presencial con tarjeta ante los órganos de recaudación de la propia Administración, en el caso de que el ciudadano no cuente con

ke herritarrak internetera sartzeko modurik ez izatea, edo ordainketa egin ahal izateko organo horren lagun-tza behar izatea. Egia esan, adierazitako ordainketa-modalitateak erabiltzea da hori (salbuespen bakarra ban-ka elektronikoaren bidezko konturako zordunketa da); desberdintasun bakarra da dirubilketa-organoetan ber-tan zuzenean egingo dela ordainketa. Eta horrek ber-me partikularrak antolatzera behartzen du. Berme ho-riek honako hauetarako izango dira: lehenik, ordainketa-prozesuan parte har dezakeen kolektiboa baimen-sis-tema baten bidez kontrolatzeko; bigarrenik, ordaintzailearen eta kreditu-erakundearen arteko bitartekariak baimendutako eragiketak bakarrik egin ahal izateko; eta azkenik, txartelaren titularitatea eta ordaintzailearen identitatea egiaztatuz, ordainketa-prozesua kontro-latzea.

Azkenik, kreditu-erakunde kolaboratzaileek baliabi-de elektroniko, informatiko eta telematiko-en bidezko ordainketetan ematen dituzten egiaztagiriak arautzen ditu Aginduak. Dirubilketa Erregelamenduaren 17.3 artikuluak ordainketa-egiaztagirietan jaso beharreko inguruabarrok arautzen ditu. Bada, inguruabar horiei bes-te batzuk gehitu behar zaizkie, hain zuzen ere, zorra eta ordainketa identifikatzeko erabiliko direnak, eta bitar-teko horien bidez emandako egiaztagiriei zorra kitatze-ko beharrezkoa duten egiazkotasuna emango dienak.

Ondorioz, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Agindu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Oga-sun Nagusiaren zuzenbide publikoko sarrerak Ordainketa Pasabidearen aplikazio informatikoaren bidez ordaintza arautzen du.

2. artikula.— Ordainketa Pasabidea.

1.— Ordainketa Pasabidea EAEko Ogasun Nagusia-ren zuzenbide publikoko sarrerak bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliz ordaintza ahalbidetzen duen aplikazio informatikoa da. Honako modalitate hauek ditu:

a) Kreditu-erakunde kolaboratzaileetan konturako zordunketaren bidez egindako ordainketa (5. artikulua), erakunde horien zerbitzu telematikoak erabilita.

b) Kreditu-erakundeek emandako kreditu-edo zor-txartelen bidez egindako ordainketa (6. artikulua).

Herritarrek, ordainketak egiteko, interneterako du-ten sarrera propioa edo Administrazioaren baliabide in-formatikoak erabili ahal izango dituzte, 7. artikuluan ezartzen denaren arabera.

2.— Hala dagokionean, Ordainketa Pasabideak sar-rearen agiriak deskargatzen utziko dio interesunari.

3.— Ordainketa Pasabiderako sarrera eskuragarri dauka herritarrak ondoko helbide elektronikoan:

un acceso a Internet, o quiera recibir apoyo de aquella para realizar el pago. Se trata, en realidad, de utilizar las modalidades de pago anteriormente citados (excep-to cargo en cuenta a través del servicio de banca elec-trónica), si bien de modo presencial ante los órganos de recaudación. Ello obliga a articular particulares garan-tías dirigidas, en primer lugar, a controlar el colectivo que puede participar en el proceso de pago, a través de un sistema de autorizaciones; en segundo lugar, a con-trolar el proceso, de forma que el funcionario que in-termedia entre el pagador y la entidad de crédito sólo pueda realizar las operaciones autorizadas; por último, dirigidas a controlar el proceso de pago, realizando labores de comprobación de la titularidad de la tarjeta y de la identidad del pagador.

Para finalizar, la Orden regula los justificantes de pa-go emitidos por las entidades de crédito colaboradoras en supuestos de pagos por medios electrónicos, infor-máticos y telemáticos. Partiendo de lo dispuesto en el artículo 17.3 del Reglamento de Recaudación, que re-gula las circunstancias que han de indicarse en los jus-tificantes de pago, se incorporan otras, identificativas de la deuda y del pago, que dotan a los justificantes emi-tidos a través de dichos medios de la autenticidad pre-cisa para otorgarles efecto liberatorio de la deuda.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

La presente Orden tiene por objeto la regulación del pago de ingresos de derecho público de la Hacienda Ge-neral del País Vasco a través de la aplicación informá-tica Pasarela de Pagos.

Artículo 2.— Pasarela de Pagos.

1.— La Pasarela de Pagos es la aplicación informáti-ca que permite el pago por medios electrónicos, infor-máticos y telemáticos de ingresos de derecho público de la Hacienda General del País Vasco a través de al-guna de las siguientes modalidades:

a) pago mediante cargo en cuenta en las entidades de crédito colaboradoras realizado a través de los ser-vicios telemáticos de estas últimas, de acuerdo con lo dis-puesto en el artículo 5, y

b) pago mediante tarjetas de crédito o débito emi-tidas por entidades de crédito, de acuerdo con lo dis-puesto en el artículo 6.

Los ciudadanos podrán realizar los pagos, bien uti-lizando su propio acceso a Internet, bien a través de los medios informáticos de la Administración, tal como se recoge en el artículo 7.

2.— En su caso, la Pasarela de Pagos permitirá al in-teresado la descarga de los documentos de ingreso.

3.— El acceso a la Pasarela de Pagos se encuentra a disposición de los ciudadanos en la dirección electróni-

www.euskadi.net (Trámites on line/Mi pago on line edo izapideak on line/nire ordainketa on line).

3. artikulua.— Ordainketa Pasabidearen funtzionamendua.

1.— Ordainketa Pasabidea urteko egun guztietañ egongo da martxan, 24 orduz jarraian. Baino dirubilket-a-organoetara bertaratzea eskatzen duten ordainketa-modalitateen kasuan (7. artikulua), organo horiek jendaurrerako ezarrita daukaten ordutegiari jarraituko zaio.

Mantenimendu teknikoa edo operatiboa dela-eta, ordainketak eten egin ahal izango dira, eta behar beste denbora iraun dezake eten horrek. Aurrez iragarri behar da etena www.euskadi.net helbide elektronikoan, ahalik eta azkarren.

2.— Ordainketa Pasabideak kreditu-erakunde kolaborzaileen web-zerbitzariekin konektatzea ahalbidetu du bitarteko telematikoen bitartez, eta horrela, ordainketa egin ahal izango da. Horretaz gain, kreditu-erakundeei diru-sarreraren identifikazio-datuak bidaliko dizkie diru-sarrerak izango duen identifikazio kode bakarraren bitartez (laugarren artikuluan adierazi da kode hori); datu horiek bidaltzeko, konexio segurua eta egiazkotasun-, osotasun- eta kofidentzialtasun-bermea eskainiko du.

4. artikulua.— Diru-sarreraren identifikazio-kode bakarra.

Ordainketa Pasabidea erabiliz ordainketa egin ahal izateko, Administrazioak diru-sarrerari buruz emandako agiriek Diru-sarreraren Identifikazio Kode Bakarra eramango dute, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduan ezarrita-koaren arabera. Agindu horrek EAEko Administrazioaren eta bere Erakunde Autonomoen zuzenbide publikoko diru-sarreren erregistro eta kobrantza automatiko-ka ezarri zuen, Administrazioaren Ordainketa eta Kobrantzen Sistema Integralaren bitartez.

5. artikulua.— Kreditu-erakunde kolaborzaileetan konturako zordunketaren bidez egiten den ordainketa, erakunde horien zerbitzu telematikoak erabilita.

1.— Ordainketa Pasabideak herritarrauk aukeratutako kreditu-erakunde kolaborazailearen web zerbitzariarekiko konexio telematikoa ahalbidetu du. Horrela, banka elektronikoaren zerbitzuetara sartu eta bere titulartasunekoa den kontuetakoren batean zordunketa egin ahal izango du, betiere, erakundeak ezarri dituen baldintzak betetzen baditu.

2.— Halaber, Ordainketa Pasabideak kreditu-erakunde kolaborzaileen web-zerbitzariekiko konexio telematikoa ahalbidetu du, hain zuen ere, aukeratutako kreditu-erakunde kolaborazaileak emandako txartelen baten bidez bezeroa identifikatu ostean, zerbitzura sartu eta txartelari lotutako kontuan zordunketa agitzeko.

3.— Konturako zordunketa eragiketa egiten den une berean egotziko da.

ca www.euskadi.net (Trámites on line/Mi pago on line), o bien (izapideak on line/nire ordainketa on line).

Artículo 3.— Funcionamiento de la Pasarela de Pagos.

1.— La Pasarela de Pagos funcionará de forma ininterrumpida las 24 horas de todos los días del año, ello sin perjuicio de las modalidades de pago que, por requerir la personación ante los órganos de recaudación, conforme a lo previsto en el artículo 7, estarán sujetas a los horarios de atención al público de los mismos.

Cuando concurran razones de mantenimiento técnico u operativo la realización de pagos podrá interrumpirse por el tiempo imprescindible. La interrupción deberá anunciarse en la dirección electrónica www.euskadi.net con la antelación que resulte posible.

2.— La Pasarela de Pagos facilitará la conexión por medios telemáticos con los servidores web de las entidades de crédito colaboradoras a fin de permitir la realización del pago, y transmitirá a aquéllas, a través de una conexión segura y con garantías de autenticidad, integridad y confidencialidad, los datos identificativos del ingreso a través del código único identificativo del ingreso a que se refiere el artículo siguiente.

Artículo 4.— Código único identificativo del ingreso.

A fin de permitir el pago a través de la Pasarela de Pagos, los documentos de ingreso expedidos por la Administración incluirán Código Único Identificativo del Ingreso de acuerdo con lo dispuesto en la Orden de 11 de abril de 2008 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública que establece el registro y cobro automatizados de los ingresos de derecho público de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos a través del Sistema Integral de Pagos y Cobros de la Administración.

Artículo 5.— Pago mediante cargo en cuenta en entidades de crédito colaboradoras realizado a través de sus servicios telemáticos.

1.— La Pasarela de Pagos facilitará la conexión telemática con el servidor web de la entidad de crédito colaboradora seleccionada por el ciudadano a fin de permitir el acceso a los servicios de banca electrónica para la realización del pago mediante cargo en alguna de las cuentas de las que sea titular, una vez cumplidos los requisitos establecidos por aquélla.

2.— Así mismo, la Pasarela de Pagos facilitará la conexión telemática con los servidores web de las entidades de crédito colaboradoras a fin de permitir, una vez identificados los clientes por medio de alguna de las tarjetas emitidas por la entidad de crédito colaboradora seleccionada, el acceso al servicio que permitirá ordenar el cargo en la cuenta vinculada a la tarjeta.

3.— La imputación del cargo en cuenta coincidirá con el momento en que se efectúe la operación.

Kreditu-erakundeek horren berri eman behar diote ordaintzaileari, eta horretaz gain, konturako zordunketaren bidez egindako eskudiruzko ordainketa bat dela adierazi behar diote.

4.– Kreditu-erakunde kolaboratzaileek ezingo dute komisiorik jaso artikulu honetan ezarritakoaren ildotik egiten diren ordainketengatik.

6. artikulua.– Zor- edo kreditu-txartelen bidezko ordainketak.

1.– Ordainketa Pasabideak zor- edo kreditu-txartelen bidezko ordainketak ahalbidetuko ditu, betiere, Agindu honen 9. artikuluan ezarritako mugen barruan. Administrazioaren organoetara bertaratuta edo urrutitik egin ahal izango da ordainketa, betiere, baimena ematen duen kreditu-erakundeak txartelak onartzan baditu.

Agindu honen ondorioetarako, kreditu-erakunde baimen-emailea da berak luzatu ez dituen kreditu- edo zor-txartelen bidez emandako ordainketa-aginduen baimenak kudeatzzen dituen kreditu-erakunde kolaboratzailea.

2.– Ordainketa Pasabideak kreditu-erakunde baimen-emailearen web-zerbitzariarekiko konexio telematikoa ahalbidetuko du, 3.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ordainketa egin nahi duen pertsonak, behin erakundearen zerbitzarian dagoelarik, transakzioa egiteko txartela onartu aurreko frogaketak egiteko beharrezkoak diren datuak eman beharko ditu.

3.– Eragiketa baimentzen bada, kreditu-erakunde baimen-emaileak ordainketaren egiaztagiria egingo du.

7. artikulua.– Administrazio-bulegoetan dirubilketa-organoen aurrean egiten den ordainketa.

1.– Herritarrek kreditu-erakunde kolaboratzaileek emandako txartel batzuk dirubilketa-organoen aurrean aurkeztu ahal izango dituzte. Txartel horiek identifikatzeko erabiliko dira, hain zuen ere, Ordainketa Pasabidearen bidez dagokion kreditu-erakundearen zerbitzu telematikora sartu eta 5. artikuluan ezarritakoaren arabera (konturako zordunketa) ordainketa egin behar denean. Halaber, erakunde baimen-emaileak onartutako kreditu- eta zor-txartelekin ere egin ahal izango dira ordainketak, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Bulegoetara bertaratuta egingo den ordainketa-rako, hurrengo artikuluan adierazitako prozedura eta bermeei jarraituko zaie.

8. artikulua.– Administrazio-bulegoetan dirubilketa-organoen aurrean egiten den ordainketarako prozedura eta bermeak.

1.– Dirubilketa-organoen aurrean egingo den ordainketa ondoko prozedura honen araberakoa izango da:

a) Ordaindu beharreko zorra identifikatu, identifikazio-kode bakarraren bidez.

Las entidades de crédito vendrán obligadas a informar de esta circunstancia a quien realice el pago, así como de que se trata de un pago en efectivo mediante cargo en cuenta.

4.– Las entidades de crédito colaboradoras no podrán percibir comisiones por los pagos realizados conforme a lo dispuesto en este artículo.

Artículo 6.– Pago mediante tarjetas de crédito o débito.

1.– La Pasarela de Pagos permitirá, dentro de los límites establecidos en el artículo 9 de esta Orden, el pago mediante tarjetas de crédito o débito, presencial ante los órganos de la Administración o a distancia, siempre que sean admitidas por la entidad de crédito autorizadora.

A los efectos de esta Orden, se entiende por entidad de crédito autorizadora la entidad de crédito colaboradora que gestiona las autorizaciones de las órdenes de pago realizadas por medio de tarjetas de crédito o débito no emitidas por la propia entidad.

2.– La Pasarela de Pagos facilitará la conexión telemática con el servidor web de la entidad de crédito autorizadora a los efectos previstos en el párrafo 2 del artículo 3.

Una vez en el servidor de la entidad, la persona interesada en realizar el pago deberá facilitar los datos precisos para realizar las comprobaciones previas a la aceptación de la tarjeta como medio de pago de la transacción.

3.– Cuando se autorice la operación, la entidad de crédito autorizadora expedirá un recibo justificante del pago.

Artículo 7.– Pago presencial ante los órganos de recaudación en dependencias de la Administración.

1.– Los ciudadanos podrán presentar ante los órganos de recaudación alguna de las tarjetas emitidas por las entidades de crédito colaboradoras como instrumento de identificación que permitirá acceder, a través de la Pasarela de Pagos, al servicio telemático de la entidad de crédito respectiva para la realización del pago mediante cargo en cuenta conforme a lo establecido en el artículo 5. Asimismo, se podrán realizar pagos con las tarjetas de crédito y de débito admitidas por la entidad autorizadora, de acuerdo con el artículo 6 anterior.

2.– El pago presencial se realizará siguiendo el procedimiento y garantías previstos en el artículo siguiente.

Artículo 8.– Procedimiento y garantías para el pago presencial ante los órganos de recaudación en dependencias de la Administración.

1.– El pago realizado ante los órganos de recaudación se ajustará al siguiente procedimiento:

a) identificación de la deuda a ingresar a través del código identificativo único,

b) Txartelaren titularra identifikatu eta txartelaren iraunaldia egiaztu; dirubilketa-organoko langileen zerregina izango da hori.

c) Kreditu-erakunde kolaboratzailearekiko conexio telematikoa, eta dirubilketa-organoko langileak ondoko hauetara sartzea: txartelari lotutako konturako zordunketa agintzeko egokitzen den zerbitzu telematikora, baldin eta 5. artikuluaren arabera ordainketa bada; eta kreditu-erakunde baimen-emailearen web-zerbitzaria, 6. artikuluaren arabera ordainketa bada.

d) Txartelaren irakurketa magnetikoa, dirubilketa-organoko langileen eskutik, edo hori ezinezkoa balitz, txartelaren zenbakia eskuz sartu.

e) Kreditu-erakundearen baimena lortu.

f) Ordainketaren egiaztagiria egin. Bi ale egingo dira: bata herritarri emango zaio, eta bestea, berriz, dirubilketa-organoak gordeko du, behin ordainketa egin duenak sinatu duenean.

2.– Ondoko bermeak izango ditu ordainketak:

a) Dirubilketa-organoko langileek bakarrik sartu ahal izango dute ordainketa-modalitate hauetarako era-biliko den Ordainketa Pasabidearen eremura, baldin eta behar bezala baimenduta bidaude. Eremu horretara egindako sarrera bakoitzean gorde egingo dira erabilitzailearen identifikazioa, bai eta sarrera egin den eguna eta ordua ere. Erregistratutako datu horiek sei hilabetez gordeko dira.

b) Ordainketa 5. artikuluan ezarritakoaren arabera egiten bada, horretarako gaitutako erakunde kolaboratzailearen zerbitzu telematikoak txartelari lotutako konturako zordunketak egiteko aginduak bakarrik onartuko ditu, betiere, Administrazioaren aldekoak badira, eta ezingo da beste eragiketa edo kontsultarik egin.

c) Ordainketa kreditu-edo zor-txartelaren bidez egiten bada (6. artikulua), dirubilketa-organoko langileak eragiketarako baimena kudeatzera bakarrik sartuko dira erakunde baimen-emailearen zerbitzarira.

d) Txartelari lotutako banku-datuak kreditu-erakunde kolaboratzailearen zerbitzarian zuzenean sartuko dira, eta ez zaizkio Administrazioaren sistema informatikoari jakinaraziko, ezta gordetzeko bakarrik bada ere.

e) Dirubilketa-organoko langileek ezin izango dituzte ikusi txartelari lotutako banku-datuak, eta ezingo dute egin aurrez identifikatutako sarreren ordainketa egiteko konturako zordunketa ez den beste eragiketarik.

9. artikulua.– Ordainketen mugak.

1.– Agindu hau aplikatuz egiten diren ordainketak kreditu-erakundeek eta euren bezeroek ezarritako baldintzen arabera egingo dira, batik bat, eragiketen zenbatekoaren mugari dagokionez.

b) identificación del titular de la tarjeta y acreditación de la vigencia de ésta por personal del órgano de recaudación,

c) conexión telemática con la entidad de crédito colaboradora y acceso del personal del órgano de recaudación al servicio telemático habilitado al efecto para la realización de la orden de cargo en la cuenta vinculada a la tarjeta, si se trata de un pago realizado conforme al artículo 5, y al servidor web de la entidad de crédito autorizadora cuando se trate de un pago realizado conforme al artículo 6.

d) lectura magnética de la tarjeta por personal del órgano de recaudación o, en su caso, introducción manual del número de tarjeta si aquélla no fuera posible,

e) Obtención de la autorización de la entidad de crédito, y

f) Expedición de un recibo justificante del pago, por duplicado ejemplar, uno de los cuales será entregado al ciudadano y, el otro lo conservará el órgano de recaudación, una vez haya sido firmado por quien realice el pago.

2.– El pago se realizará con las siguientes garantías:

a) únicamente tendrá acceso restringido al área de la Pasarela de Pagos destinada a estas modalidades de pago el personal del órgano de recaudación debidamente autorizado. De cada acceso se guardará la identificación del usuario y la fecha y hora en que se realizó. El periodo de conservación de los datos registrados será de seis años,

b) en el caso de que el pago se realice conforme a lo dispuesto en el artículo 5, el servicio telemático de la entidad colaboradora habilitado al efecto sólo permitirá ordenar cargos en la cuenta vinculada a la tarjeta y a favor de la Administración, sin posibilidad de efectuar otra operación o consulta,

c) si el pago se realiza mediante tarjeta de crédito o débito, conforme al artículo 6, el personal del órgano de recaudación sólo accederá al servidor de la entidad autorizadora para gestionar la autorización de la operación,

d) introducción directa en el servidor de la entidad de crédito colaboradora de los datos bancarios vinculados a la tarjeta, sin que puedan comunicarse, ni siquiera para su conservación, al sistema informático de la administración,

e) imposibilidad de que el personal del órgano de recaudación visualice los datos bancarios vinculados a la tarjeta ni que realice operación diferente a la orden de cargo en cuenta para el pago de los ingresos previamente identificados.

Artículo 9.– Límite de los pagos.

1.– Los pagos que se realicen en aplicación de esta Orden estaran sujetos a las condiciones establecidas entre las entidades de crédito y sus clientes, especialmente en lo referente al límite en el importe de las operaciones.

2.- Dirubilketa Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, kreditu- eta zor-txartelen bidez egindako ordainketek ezingo dituzte gainditu gaian eskumena duen Sailak ezarritako muga ekonomikoak.

10. artikulua.- Publikotasuna.

Kreditu-erakunde kolaboratzaileen eta onartutako kreditu- eta zor-txartelen zerrendak ikusgai egongo dira www.euskadi.net helbidean, bai eta dirubilketa-organoen bulegoetan ere, herritarra ongi ikusteko leku batean.

Halaber, bitarteko berberak erabiliko dira ordainketak kreditu- eta zor-txartelen bidez egin behar direnean egongo diren diru-mugak zeintzuk diren adierazteko.

11. artikulua.- Kreditu-erakunde kolaboratzaileen betebeharra.

1.- Behin ordainketa eginda, kreditu-erakunde kolaboratzaileek honela jardungo dute:

a) Erreferentzia Zenbaki Osoa (aurrerantzean EZO) sortu eta Ordainketa Pasabidera itzuliko dute (on-line). Zenbaki horren bidez, Administrazioak luzatutako sarrera-agiri bat horri dagokion ordainketarekin lotu ahal izango da. Eta kontuan izan behar da honakoa:

1) EZOa jasotzen duen egiaztagiriak izan behar du egiaztagiri hori eman duen kreditu-erakundean egindako diru-sarrera bati buruzkoa.

2) Dagokion Administrazioak egindako sarrera-agiriari buruzkoa izan behar du egiaztagiriak, ez beste agiri bati buruzkoa.

EZOaren osaera eta ezaugarri teknikoak Agindu honen I. eranskinean zehaztutakoak izango dira.

b) Ordainketaren egiaztagiria emango dute, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Kreditu-erakundeak konturako zordunketa bidez ordaintzeko baimenik ematen ez badu, horren beari eman behar zaio izapideak egin dituen pertsonari, eta ez onartzearen arrazoiak zeintzuk diren adieraziko zaio. Kreditu-erakundeak Ordainketa Pasabideari ere jakinaraziko dio ukapen hori.

Administrazioa ez da izango konturako zordunketa egiteko agindua atzera botatzeko kreditu-erakundeak ematen dituen arrazoien erantzule, ez eta agindu horren onarpenarena ere.

12. artikulua.- Ordainketaren egiaztagiria.

1.- Behin Ordainketa Pasabidearen bidez ordainketa eginda, kreditu-erakunde kolaboratzaileek ordainketaren egiaztagiria egingo dute. Egiaztagiri horrek, gutxienez, ondoko datuak jaso beharko ditu:

- a) Diru-sarreraren identifikazio-kode bakarra.
- b) Diru-sarreraren zenbateko.
- c) Diru-sarrera noiz egin den (eguna eta ordua).
- d) Erakundearen kodea, eta, hala dagokionean, bulegoaren kodea.
- e) EZOa.

2.- De conformidad con lo dispuesto en el Reglamento de Recaudación, los pagos mediante tarjetas de crédito y débito no podrán exceder de los límites económicos fijados por el Departamento competente en la materia.

Artículo 10.- Publicidad.

La relación de las entidades de crédito colaboradoras y de las tarjetas de crédito y débito admitidas se pondrán en la dirección www.euskadi.net y en las oficinas de los órganos de recaudación en lugar visible para los ciudadanos.

Así mismo, se informará por idénticos medios de los límites económicos para la utilización de las tarjetas de crédito y débito como medio de pago.

Artículo 11.- Obligaciones de las entidades de crédito colaboradoras.

1.- Realizado el pago, las entidades de crédito colaboradoras deberán proceder a:

a) la generación y devolución on line a la Pasarela de Pagos del Número de Referencia Completo (en adelante, NRC), que permita asociar un determinado documento de ingreso expedido por la Administración al pago derivado del mismo, de manera:

1) que el justificante en el que figura el NRC responda a un ingreso realizado en la entidad de crédito que lo expide y

2) que el justificante corresponda al documento de ingreso expedido por la Administración a que se refiere y no a otro.

La composición y características técnicas del NRC serán las descritas en el anexo I de esta Orden.

b) la emisión de un recibo justificante del pago de acuerdo con lo dispuesto en el artículo siguiente.

2.- Cuando la entidad de crédito no autorice la orden de cargo en cuenta para la realización del pago deberá comunicar esta circunstancia y los motivos del rechazo a la persona que haya efectuado el trámite. Así mismo, la entidad de crédito comunicará el rechazo a la Pasarela de Pagos.

La Administración no responderá de los motivos de rechazo de la orden de cargo en cuenta que, en su caso, indique la entidad de crédito ni asumirá responsabilidad alguna por su admisión.

Artículo 12.- Recibo justificante de pago.

1.- Realizado el pago a través de la Pasarela de Pagos, las entidades de crédito colaboradoras expedirán un recibo justificante del pago que contendrá, al menos, los siguientes datos:

- a) código único identificativo del ingreso,
- b) importe ingresado,
- c) fecha y hora del ingreso,
- d) código de entidad y, en su caso, código de oficina,
- e) NRC y

f) Ondoko testua: «Egiaztagiri hau ordaindu izanari buruzko frogagiria da, eta gaurtik arrera adierazitako zenbateko hori ordaintzeko obligazioa kentzen dio zordunari».

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamenduaren 17. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitado ondorioetarako, diru-sarreraren identifikazio kode bakarra ordain-agirietan jasotzea nahikoa izango da zorduna eta zorra identifikatzeko.

13. artikulua.- EZOA sortu izanaren ondoriozko bebeharra.

Behin EZOA sortuta, kreditu-erakunde kolaboratzai-leek ondoko hauek egin behar dituzte:

a) EAEko Diruzaintza Nagusiaren sarreren kontu belezian ordainketa egin, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduan ezarritakoaren arabera (2008ko otsailaren 29ko Agindua, EAEko Ogasun Nagusiaren dirubilketa-kudeaketarako lankidetza-zerbitzua arautzen duena).

Kreditu-erakunde kolaboratzailea, behin EZOA sortu ondoren, ordain-agirian ageri den zenbatekoa EAEko Ogasun Nagusiari ordaintzera behartuta dago, eta horrela, obligaziodunak ez dauka Ogasunari ordaindu beharrik.

b) Egindako diru-sarreraren itzulketa egin behar bada, bidegabeki jasotako diru-sarrerak itzultzeko eskabidea egin beharko zaio Admninistrazioari.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.- Lankidetza-hitzarmenak.

Agindu honen aplikazio-eremukoak ez diren EAEko Herri Administrazioek Ordainketa Pasabidearen bidez kobrau ahal izango dute, EAEko Administrazioarekin sinatutako hitzarmenari jarraiki.

Bigarrena.- Publikotasuna, euskadi.net atarian.

Ordainketa Pasabidearen bidez egingo diren sarreren kontzeptuak www.euskadi.net atarian argitaratuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Lebenengoa.- Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 11.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

f) leyenda con el siguiente texto «Este recibo constituye justificante de pago y libera al deudor de su obligación de pago desde la fecha y por el importe señalados».

2.- A los efectos previstos en el apartado 4 del artículo 17 del Reglamento de Recaudación de la Hacienda General del País Vasco, la introducción en los justificantes de pago del código único identificativo del ingreso se considera identificación suficiente de la persona del deudor y de la deuda.

Artículo 13.- Obligaciones derivadas de la generación del NRC.

Una vez generado el NRC, las entidades de crédito colaboradoras deberán:

a) realizar el abono en la cuenta especial de ingresos de la Tesorería General del País Vasco, en las condiciones establecidas en la Orden de 11 de abril de 2008 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública por la que se regula el servicio de colaboración en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

La entidad de crédito colaboradora queda obligada frente a la Hacienda General del País Vasco a partir del momento de su generación, por el importe que figura en el justificante, quedando el obligado liberado de su obligación de pago frente a la Hacienda y

b) Para la devolución, en su caso, de lo ingresado se deberá instar ante la Administración la correspondiente solicitud de devolución de ingresos indebidos.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.- Convenios de colaboración.

Las Administraciones Pùblicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi no incluidas en el ámbito de aplicación de esta Orden podrán efectuar cobros a través de la Pasarela de Pagos en virtud del correspondiente Convenio con la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Segunda.- Publicidad en el portal euskadi.net.

Los conceptos susceptibles de ingreso a través de la Pasarela de Pagos se harán públicos en el portal www.euskadi.net.

DISPOSICIÓN FINAL

Primera.- Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2008.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

I. ERANSKINA

ERREFERENTZIA ZENBAKI OSOA (EZO)

(A) EZOa sortzea.

2.- EZOa sortzeko, ondoko datu hauetatik aterako diren 64 karaktere erabiliko dira:

| Kode Identifikatzalea | Karaktere 1 x | EZO motaren identifikatzalea, eragiketaren araberakoa. |
|--|--------------------------------|--|
| Diru-sarrera mota | 3 karaktere xxx | Erabilitako koadernoaren arabera |
| Diru-sarreraren agiria eman duen entitatearen identifikatzalea | 11 karaktere xxxxxxxxxxxx | Likidazioa egin duen administrazioa identifikatzeko kodea |
| Diru-sarreraern identifikatzalea | 14 karaktere xxxxxxxxxxxxxx | Administrazioak likidazioa identifikatzeko emandako kodea |
| Diru-sarreraren agirian jasotako zenbatekoa | 12 karaktere xxxxxxxxxxxx | Entitatean sartutako zenbatekoa, likidazioan adierazitako epeari dagokion ordainketaren zenbatekoarekin bat datorrena |
| Diru-sarreraren eguna | 8 karaktere xxxxxxx | Kreditu-erakundeak zenbatekoa sartzen duen eguna. Likidazioan adierazitako ordainketa-epeekin bat etorri behar du. Formatua: eehhuuuu |
| Kreditu-erakundearen kodea | 4 karaktere xxxx | Banco de Español erakundeari emandako kodea |
| Ordain-agiriaren identifikazioa | 6 karaktere xxxxxx | Kreditu-erakundeek aukeran izango dute erabiltzea ala ez. Erabiltzen ez bada, bost zero (00000) bidaliko dira. |
| Ordain-agiriaren identifikazioa, finantza-erakundearentzat. | 11 karaktere xxxxxxxxxx | Kreditu-erakundeek aukeran izango dute erabiltzea ala ez. Euren sistemetan ordain-agiriak identifikatzeko balioko die. |

ANEXO I

NÚMERO DE REFERENCIA COMPLETO (NRC)

(A) Generación NRC

1.- El NRC se generará a partir de 64 caracteres obtenidos a partir de los siguientes datos:

| | | |
|--|---------------------------------|---|
| Código Identificador | 1 carácter x | Identificador del tipo de NRC en función de la operación |
| Tipo de ingreso | 3 caracteres xxx | Según cuadernillo utilizado |
| Identificador de la entidad emisora del documento de ingreso | 11 caracteres xxxxxxxxxxxx | Código que identifica a la administración emisora de la liquidación |
| Identificador ingreso | 14 caracteres xxxxxxxxxxxxxx | Código emitido por la Administración que permite identificar la liquidación |
| Importe consignado en el documento de ingreso | 12 caracteres xxxxxxxxxxxx | Importe ingresado en la entidad que ha de corresponder con el importe a pagar para el periodo indicado en la liquidación |
| Fecha de ingreso | 8 caracteres xxxxxxxx | Fecha en la que la entidad de crédito ingresa el importe. Debe coincidir con los períodos de pago señalados en la liquidación Formato: ddMMyyyy |
| Código entidad de crédito | 4 caracteres xxxx | Código asignado por el Banco de España a la entidad |
| Identificación justificante de pago | 6 caracteres xxxxxx | De utilización opcional para las entidades de crédito. En caso de no ser utilizado, se enviarán cinco ceros (00000) |
| Identificación del justificante de pago para la Entidad Financiera | 11 caracteres xxxxxxxxxxxx | De utilización opcional para las entidades financieras. Les permite identificar el justificante de pago en sus sistemas |

2.- 64 karaktere horietatik abiatuta, sinadura bat sortzen da DES algoritmoaren (Data Encryption Standard) MAC funtzioa (Message Authentication Code) erabiliz, ANSI X9.9 arauaren arabera.

3.- Azken EZOa likidazioaren identifikazioak (25 karaktere) eta 2. puntuaren adierazi bezala sortutako sinadurak (8 karaktere) osatuko dute. Guztira 33 karaktere.

(B) Diruzaintzaren alorrean eskumena duen sailak eta erakunde kolaboraztaleek zifratu-gakoak sortzea.

1.- EZOaren sinadura DES algoritmoaren MAC funtzioan (Message Authentication Code) oinarritzen den algoritmo baten bidez lortzen da; horretarako, gako simetriko bat erabiliko da (Administrazioaren gakoa eta finantza-erakundearena berbera da).

2.- Sinaduraren gako hori sekretua izan behar da, eta ez du entitate bakar batek ere ezagutu behar, ez Administrazioak, ez finantza-erakundeek.

Gakoa bi zatitan egiten da, eta zati horiek ez dira inoiz elkartuko, ez bada sistema informatiko baten barnean, gako osoa eraiki eta gordetzeko:

- Ordainketa Pasabidearen bi arduradunek EZOaren sinadura-gakoaren bi zati sortuko dituzte.
- Ordainketa Pasabidearen arduradunetako bakoitza bere gakoaren zatia sartuko du sistema informatiko batean, eta XOR funtzio bat erabiliko da EZOa sortzeko sinaduraren azken gakoa (garbian) lortzeko.
- Gakoa encriptatuta gordeko da Ordainketa Pasabidearen arduradunek bakarrik ezagutuko duten beste gako baten bitartez.
- Ordainketa Pasabideak bereizita bidaliko dio gakoaren bere zatia finantza-entitatean duen homologari.
- Finantza-entitate bakotzak, XOR funtzio bat erabiliz, eta jaso dituen bi gakoen bidez, berriz eraikiko du gakoa, eta encriptatuta zainduko da sisteman; horretarako, finantza-erakunde bakotzaren gakoa erabiliko da, finantza-erakundeak berak sortutakoa.

2.- A partir de los 64 caracteres se genera una firma utilizando la función MAC (Message Authentication Code) del algoritmo DES (Data Encryption Standard) según norma ANSI X9.9.

3.- El NRC final se compone de la identificación de la liquidación (25 caracteres) y la firma generada según lo dispuesto en el punto 2 (8 caracteres). Total: 33 caracteres.

(B) Generación de claves de cifrado por el departamento competente en materia de tesorería y de las entidades colaboradoras.

1.- La firma que forma parte del NRC se obtiene mediante un algoritmo basado en una función MAC (Message Authentication Code) del algoritmo DES, utilizando una clave simétrica (la clave de la Administración es la misma que la de la Entidad Financiera).

2.- Esta clave de firma debe ser secreta y no conocida por ninguna entidad, ni por la Administración ni por las Entidades Financieras.

Se divide la clave en dos partes que nunca se juntarán salvo en el interior de un sistema informático para construir y almacenar la clave completa:

- Dos responsables de la Pasarela de Pagos generarán dos partes de la clave de firma del NRC.
- Cada uno de los dos responsables de la Pasarela de Pago introducirán su parte de la clave en un sistema informático donde se utilizará una función XOR para obtener la clave de firma final (en limpio) de generación del NRC.
- La clave se guardará encriptada por otra clave privada que solo conocerán los responsables de la Pasarela de Pagos.
- La Pasarela de Pagos enviará por separado su parte de la clave a su homólogo en la Entidad Financiera.
- Cada Entidad Financiera, utilizando una función XOR, se volverá a construir la clave a partir de las dos partes recibidas y se custodiará en sus sistemas encriptada utilizando una clave privada de cada Entidad Financiera generada por la propia Entidad Financiera.

Grafikoa: EZOaren sinadura-gakoa sortzea, zaintza eta transferitzea.




Grafico de generación, custodia y transferencia de la clave de firma de NRC

